

Irakaskuntzaren medikalizazioaz



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
IDAZLEA



PAULA ESTÉVEZ

Denok eri! Oihu hori du botatzen frantsesezko liburu baten izenburuak (*Tous malades!; Orizons, Comparaisons*. Paris, 2018). Obra kolektibo horretan, hainbat ikerle saiatzten da aztertzen eritasunari lotu diskurtsoak eta jokabideak, bai jendartean, bai bereziki literaturan, azpimarratuz alde batetik gaixotasun arloari doazkion hizkerak hedatu direla medikuntzatik harago, eta bestetik isuri handia duela egungo gizarteak edozein arazo mota modu medikalizatuan aipatzeko edo konpondu nahi izateko. Giza korapiloen askatzaile bide normala bihurtua dateke medikuntzarena. Bistan dena, gauza ontzat daukat eritasunaren integrazioa normalitatearen mugen artean; uste dut, *Denok eri!* bilduman erakusten den bezala, gaixotasunagatik jendeak osoki parte har dezakeela gizartearen kohesio eta koherentzian, manera kementsuz eta dinamikoz. Baina aitortu behar da eritasuna arrunki aipatzean, ez da horrelako ikuspegi baikorretik egiten, gaitzarenetik baikik. Eskuarki entzuten delarik “denok gaixo” gaudela, aburu ezkorra adierazteko da, denok gaizki gaudela, alegia, denok arazodunak –Tocquevillek jadanik iragarria zuen demokrazietako hi-

ritarrak halabeharrez erituko zirela-. Hari horretarik, gero eta gehiago dei egiten zaio medikuntzari edozein gizarte problema antolatzeke, gizarte osasun abstraktu bat helburu.

Irakaskuntzan ere jaidura hori nabaritzen da, ondorio larriekin. Hain zuzen ere, azken berrogeita hamar urteetan, eskolako hutsegitea ikaslearen ahulezia patologiko baten gain ezartzeko joera azkartu da. Kasik erreflexua bihurtu da eskola zailtasunetan diren ikasleak ortofonista, ortoptista, ergoterapeuta edo psikomotrizilariarengana igortzeko: segurtasun neurri gisa ikusia da irakaskuntzan mediku batek diagnostiko bat eman dezan nekez ari den haurrari buruz. Ondorioz, klase guzietan daude medikuntza protokolo ezberdinak baliatzen dituzten ikasleak. Eta protokolo horiek hain dira ezberdinak non ezinezkoa zaion irakasleari guzien arabera egokitzea bere kurtsoa. Ikasle batzuek ez dute idatzi behar, beste batzuek tarteka idatzen ahal dute; batendako koloreztatu beharko dira batekoak, hamarrekoak eta ehunekoak bere begiradak jauziak egiten dituelako; bestearendako grabatu beharko zaizkio testuak eta kontsignak irakurketa saihesten dezan... Azken finean, hain dira hedatu delako

medikuntza protokolo anizkun horiek non guraso batzuek baitezpada galdetzen dituzten beren seme-alabentzat, nekezian ikusten dituztelarik. Zenbaitzuek ez dituzte kontuan hartzen ere irakasleok egin aholku pedagogikoak edo hezkuntza-oharrak: mediku agiriaren gibelean ezkutatzten dute beren guraso kargu uztea eta gogorrak bihurtzen dira irakasleek haien haurra medikuak ez eskatu era batez lagundu nahi dutelarik. Bizkitartean, pedagogian adituak direnek lor lezakete ikasleak aitzinarazten beren tresna metodologiko bereziekin, medikuntza protokoloetatik at, eskolaren sistema eta hezkuntza bi-deak galdekatuz.

Klasean denok eri baldin bagaude, irakasle eta ikasleak, ez dut uste sendatuko garenik ikas prozesuak gehiegizko medikuntzaren meneko ezarritik. Norbanakoen eta gizartearen loratze sendoa heziketaren bidez kausi daitekeela sinetsi nahi dut, proiektu pedagogikoak eraikiz, zentzu onez eta arduraz jokatuz, irakasle, ikasle eta gurasoen artean. Ildo horretatik, eskertzeoak dira hainbat pedagogoren eta hezitzaileren lana, hala nola Euskal Herrian Hik Hasi euskal heziketarako asmoa bultzatzen dutenena. ●